

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoak ezarri eta arautzen dituen udal ordenantzari**

Lapuebla de Labarcako udalbatzak, 2018ko maiatzaren 17ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoak ezarri eta arautzen dituen udal ordenantzari. Horri buruzko iragarkia ALHAOn 62. zenbakian eman zen argitara, 2018ko maiatzaren 30ean, baita Korporazioaren iragarki taulan ere, eta jendaurrean ipintzeko hogeita hamar egun balioduneko epealdia ireki zen, iradokizunak eta erreklamazioak aurkezteko.

Jendaurrean egoteko epealdi hori igaro eta inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez delarik, toki araubidearen oinarrien Legeak 49. artikuluan xedatzen du erabakia, ordura arte behin-behinekoa dena, behin betiko onartutzat eman beharko dela. Legezko ezarpen hori osatzen da legezko testu berak bere 70. artikulua 2. zenbakian jasotakoarekin. "Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onartu eta ALHAOn oso-osorik argitaratu ondoren eta apirilaren 2ko Legeak, toki araubidearen oinarri buruzkoak, bere 65.2. artikuluan ezarritako epea gaingitu ondoren; hala, indarrean sartzetik aplikagarria izango da eta indarrean jarraituko du haren aldarazpena edo beren beregiko indargabetzea erabakitzen ez den bitartean."

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen udal ordenantzaren testu osoa.

#### **1. artikulua. Xedea**

Ordenantza honen xedea da arautzea etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa; hain zuzen ere:

- Zerbitzuaren erabiltzaileak prezio publikoa ordaintzean nola lagundu behar duen ezartzeko irizpideak.
- Sortzapenean eta ordainketan aplikatuko diren irizpideak.
- Prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoak ezartzea, bai eta erabiltzaileen ahalbide ekonomikoaren arabera aplikatuko diren hobariak ere.

#### **2. artikulua. Eremua**

Zerga ordenantza hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, bai zuzenean kudeatzen bada, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatzen bada, bai erakunde pribatuekin sinatutako itunen, hitzarmenen edo kontratuen bitartez kudeatzen bada.

#### **3. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak**

1. Honako hauek ordaindu behar dituzte prezio publikoak:

- a) Etxez etxeko laguntza zerbitzua zuzenean erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta 1. paragrafo honen b) eta c) letretan aipatutako egoeretan ez badaude.

b) Zerbitzuaren erabiltzailea adingabekoa baldin bada, bere guraso ahala daukaten pertsonak (edo pertsonak) edo babesak edo zaintza daukaten pertsonak (edo pertsonak) ordaindu beharko dute.

c) Erabiltzaile helduak legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile baten bitartez jarduten badira, zerbitzua jasotzeko erregelamenduan ezarritako baldintzen arabera, ordezkari edo zaintzaile horiek ordaindu beharko dute. Dena den, kasu horietan, ordainketa zordunduko da ordezkariaren pertsonaren errentan edo ondarean, eta zenbatutako ahalmen ekonomikoa izango da pertsona ordezkariarena.

2. Hala badagokio, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaindu beharko dute honako pertsona hauek egindako doako eskualdaketa jaso duten pertsonak: erabiltzaileak; artikulua honen 1. zerbakiaren arabera ordainketa egin behar duen pertsonak; edo 60 urtetik aurrera edo zerbitzu eskaera egin aurretiko 10 urtean erabiltzailearen ezkontidea izan den edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman baten bidez erabiltzailearekin lotuta egon den pertsonak –zerga ordenantza honen lehen xedapen gehigarrian harreman hori zehaztu den baldintzetan–. Ordaindu beharrik muga bat dauka: gehienez ere eskualdatutako ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa zorra eskatzen den unean.

## I. TITULUA: ERABILTZAILEAK PREZIO PUBLIKOEN ORDAINKETAN NOLA LAGUNDU EZARTZEKO IRIZPIDEAK

### 4. artikulua. Prezio publiko osoa ordaintzea

1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, etxeko laguntza zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak dagokien prezio publiko osoa ordainduko dute, baldin eta behar besteko ahalmen ekonomikoa badute, eta, edonola ere, prezio hori ordaintzeko beharrezko bermeak egitea eskatu ahal izango zaie.

2. 1. paragrafoan ezarritakoa betetzeko, zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak behar besteko ahalmen ekonomikoa dutela joko da kasu honetan: ahalmen ekonomikoa, zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatua, II. eranskinean zehaztutako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa bada, zerbitzu mota kontuan hartuta.

3. Prezio publikoa zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa artikulua honen 2. paragrafoan ezarritako mugen azpitik badago, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaintzera behartutako eta 3.2 artikuluan definitutako pertsonetara joko da, erabiltzaileak egindako ekarpena osatzeko, harik eta prezio publikoaren zenbatekoa osorik estali arte, edo prezio publikoa osorik ordaintzeko, baldin eta prezio publikoa 3.1 artikuluan arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoak ez badio uzten ekarpenik egiten.

### 5. artikulua. Hobariak

1. 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik ez badute, II. eranskinean ezarritako mugaren azpitik dagoelako, prezio publiko horien hobariak jaso ahal izango dituzte.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren prezio publikoen hobariak gehikortasun printzipioaren arabera aplikatuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta. Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatuko da.

3. Artikulu honetan ezarri diren hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean finkatu dira, eta, I. eranskinean finkatu diren prezio publikoak indarrean baldin badaude, aplikagarriak izango dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarri den moduan eguneratzen edo aldatzen baldin badira, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

**6. artikulua. Salbuespen partzialak, erabilera motaren arabera**

1. Etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen pertsona batek aldi batez zerbitzua erabiltzeari uzten badio eta etenaldiak ondoz ondoko 7 egun natural baino gehiago irauten badu, ez du ordaindu beharko prezio publikorik. Horretarako, erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute zerbitzua jasotzeari utziko diotela, etenaldia hasi baino 7 egun lehenago gutxienez, larrialdia dela eta ezinezkoa denean izan ezik (behar bezala frogatu behar da). Zerbitzua ondoz ondoko 7 egun naturalez baino egun gutxiagoz erabili ez bada, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko da.

2. Baldin eta zerbitzu hori aldi berean erabiltzen bada beste zerbitzu batzuekin, ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoan.

3. Zerbitzua eten arren ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoaren ordainketan, baldin eta, zerbitzua eskuratzeko erregelamenduaren arabera, eskatzen den informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra behar baino beranduago betetzen bada, edo prezio publikoa behin eta berriro ordaintzeke uzten bada.

**7. artikulua. Erabilera libreko zenbatekoa**

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuko da zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabili den formularen bitartez (hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean ezarri dira).

**II. TITULUA: SORTZAPENA ETA ORDAINKETA****8. artikulua. Sortzapena**

Erregelamendu honetan arautu den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortuko da zerbitzua eraginkortasunez hasten den egunean, eta egun horretatik zerbitzua erabiltzen behin betiko amaitzen den unera arte iraungo du betebeharrak horrek.

**9. artikulua. Ordainketa**

Zerbitzu batengatik ezarritako prezio publikoa –zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein salbuespen partziala daukana– ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da. Kobrantza banku batean helbideratuko da.

**III. TITULUA: KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK****I. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA****10. artikulua. Ahalmen ekonomikoaren osagaiak**

1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan zehaztu denaren arabera, ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa kalkulatu behar da, prezio publikoan egingo duen ekarpena zehazteko; horretarako, urteko errenta eta ondarea zenbatu beharko dira, eta kapitulu honetan ezarritako balorazio irizpideak aplikatu.

2. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek erabiliko dira:

a) Erabilgarri dauden azken zerga datuak, betiere, datu horiek aldatu dituen geroagoko gertaera garrantzitsu bat izan ezean. Horrelako kasuetan, datu eguneratuenak erabiliko dira.

b) Hiriko edo landako ondasunak badira, ondasun horien balio handiena zenbatuko da, honako hauek kontuan hartuta: katastroko balioa, Administrazioak beste zerga batzuetarako ziurtatu edo finkatu duen balioa, eta prezioa, kontraprestazioa edo eskurapen balioa.

**11. artikulua. Errenta**

1. Aurreko artikuluan aipatu den ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo diru sarrera zenbakarritzat hartuko dira lanaren ondorioz familia unitateak urtean dituen etekinak eta eskubideak, bai eta jaso ditzakeen beste batzuk ere. Edonola ere, honako hauek:

a) Funts publikoetan edo pribatuetan zorduntzeko pentsioak edo prestazio ekonomikoak (jasotzen diren diru sarrera gordinak zenbatuko dira). Horretarako, sailkapen horren barnean hartuko dira pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide ekonomiko, zerbitzuaren erabiltzaileak eskubide horiek sortu baditu, artikuluko honen 2. zenbakian ezarritako prestazioak izan ezik.

b) Norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik lortutako etekin osoak.

2. Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko errenta zehazteko:

a) Azaroaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzearenak, ezarritako prestazio ekonomiko finalistak, besteak beste, hauexek: familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileentzako prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa.

b) Honako prestazio hauek -aurreko a) letran ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezauzgarriak dituzte-:

— Baliaezintasun handiaren ziozko osagarria, gizarte segurantzari buruzko lege orokorraren testu bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 139.4 artikuluan arautzen duena.

— Gutxienez ehuneko 75eko minusbaliotasun gradua duen 18 urtetik gorako seme edo alabaren bat kargura daukatenentzako esleipen ekonomikoaren osagarria, gizarte segurantzari buruzko lege orokorraren testu bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 182 bis 2 c) artikuluan ezartzen duena.

— Kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzeagatik jasotzen dena, gizarte segurantzari buruzko lege orokorraren testu bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 145.6 artikuluan ezartzen duena.

— hirugarren pertsona baten laguntzaren ziozko sorospena, Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 12.2 c) artikuluko arautzen duena, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena, legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

3. Errenta balioztatzeko, erreferentziatzen hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa, 10.2 artikuluan aipatu diren zerga datuak oinarri hartuta. Diru sarreratzat zenbatuko dira honako kontzeptu hauen batuketak:

Lan etekin osoak;

— lanbide jardueren, enpresa jardueren, eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbiak;

— Salbuetsietako eta egotzitako lan errentak guztiak.

Artikulu honetako 2. zenbakian azaldutako errentaren bat jasotzen dutenek prestazio ekonomiko horien frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsietako zenbatekoa kalkulatzeko, zenbaki horretan ezarritako ondorioetarako.

4. Hileko errenta kalkulatzeko, urteko errenta zati hamabi egingo da.

**12. artikulua. Ondarea**

1. 10. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ondareztat hartuko dira honako hauek:

a) Azken zerga datu erabilgarriak oinarri hartuta, familia unitateko kideek osorik edo modu partzialean beren izenean dituzten ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak. Datu horiek osatuko dituzte aktiboei buruz eskatuko diren datuek.

b) Ekitaldi batean edo ekitaldi gehiagotan sortu diren kalte ordain edo errenta kapitalizatuak.

c) Erabiltzaileak, bere ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak —zerga ordenantza honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan— edo zerga ordenantza honen 3.2 artikuluan ezarritako baldintzetan ordaindu behar duen pertsonak doan eskualdatu dituen ondasunen eta eskubideen balioa.

2. Ondoko hauek ez dira sartuko ondarean:

a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa eduki ezean (apartekotzat jotzen dira 300.000 eurotik gorako katastro balioak); etxebizitzaren balioa apartekoa bada, muga horren gaineko kopurua zenbatu behar da ondarean.

Ondore horietarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko dira honako hauek: etxebizitza bera, garajea edota trastelekua; eta, familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada, etxebizitzari atxikita dagoen lur zatia ere bai (bereizita egon ezean).

b) Ondasunen eta eskubideen gainean dauden eta haien balioa murrizten duten zamak eta kargak.

c) Zor eta betebeharrak pertsonalak.

d) Babes berezia duen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, azaroaren 18ko 41/2003 Legearen babespean (zeinaren bidez pertsona desgaituen ondarea babesten baita eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legearen eta zerga erregelamendua aldatu baitira pertsona horien ondarea babesteko); zerbitzua jasotzen duena ondarearen jabea bera bada izan ezik, pertsonaren beharrianak asetzen dituen heinean, aurrean aipatutako legeko 1.1 eta 5.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita.

3. Ondarearen hileko zenbatekoa kalkulatzeko urteko zenbatekoa zati hamabi egingo da.

**13. artikulua. Familia unitatea**

1. Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko, familia unitatean honako kide hauek hartuko dira kontuan:

a) zerbitzuaren onuraduna adin nagusikoa bada:

— Zerbitzuaren onuraduna bera;

— onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez berarekin lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala kreditatuta, lehen xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan;

— Seme-alaba adingabeak;

— 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira eskaera egiten den egunean;

— ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18—23 urte bitarteko seme-alabak.

b) zerbitzuaren onuraduna adinez txikia bada:

— Zerbitzuaren onuraduna bera;

— haren aita eta ama;

— haren neba-arreba adingabeak;

— 18 urtetik gorako neba-arrebak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira eskaera egiten den egunean;

— ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-23 urte bitarteko neba-arrebak.

2. Edonola ere, pertsona bat familia unitate bakarreko kide baino ezin da izan.

#### **14. artikulua. Ahalmen ekonomikoa baloratzeko irizpideak**

1. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako batura hau egin behar da: familiaren urteko errentari familiaren urteko ondarearen ehuneko jakin bat gehitu. Ehuneko horiek aldatuko dira erabiltzailearen adina zein den. Hona hemen:

a) Erabiltzaileak 35 urte baino gutxiago badauzka, bere ondarearen ehuneko 3.

b) Erabiltzailea 35-65 urte bitartekoa bada, bere ondarearen ehuneko 6.

c) Erabiltzaileak 65 urte baino gehiago badauzka, bere ondarearen ehuneko 20.

2. Halaber, berariazko irizpide hauek aplikatu beharko dira:

a) Pertsona bakarreko familia denean, ahalmen ekonomikoa 1. paragrafoan azaldutakoa zuzenean aplikatuz zehaztuko da.

b) Familia unitatean bi pertsona badaude, prezio publikoa kalkulatzeko (osoa edo hobariduna), 1. paragrafoan azaldutakoaren arabera kalkulaturako hileko guztirako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80 hartuko da kontuan.

c) Familia unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) idatz zatian azaldu den ehuneko 80ko kopuruari ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.

3. Hileko ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, urteko ahalmen ekonomikoa zati hamabi egingo da.

## **II. KAPITULUA: EBAZPENEA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERAKETA**

### **15. artikulua. Ebazpena**

Organo eskumendunaren ebazpenean jasoko da zerbitzuaren prezio publiko osoa, eta hala badagokio, ahalmen ekonomikoaren arabera prezio publiko hobariduna.

### **16. artikulua. Prezio publikoak ofizioz berrikustea eta informazioa eman beharra**

1. Etxez etxeko laguntza zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoak (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa, zein geroratutako kopurua), banaka zein denak batera, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskumendunak, eta interesdunak, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira. Berrikuspen baten ondorioz jakiten bada prezio publikoa ezartzerakoan kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa aldatu dela, prezioaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, dagokion ebazpen bidez.

1. Horren ondorioetarako, zerga ordenantza honek erreferentzia egiten dion prezio publikoa ordaintzera loturik dagoen edozein zerbitzuren erabiltzaileak –edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak– jakinarazi beharko du, hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, gorabeherarik egon den elkarbizitza egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propio edo inoren ondare konputagarrian eta erabiltzaileari esleitutako prezio publikoetan eragina izan dezaketen gainerako inguruabar guztietan.

2. Administrazio eskumendunak jakinez gero zerbitzu erabiltzaile baten ahalmen ekonomikoa aldatu dela eta ez dela horren berri eman aurreko zenbakian ezarri den bezala, ezarritako prezio publikoa berrikusiko du eta inguruabar berrietara doituko du. Bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, atzerako eraginez aplikatuko da, egoeran aldaketa hori gertatu zen egunetik aurrera eragina izateko, eta 3.1. artikuluaaren arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak, hartara, epe horretan pilatu diren ordainkizun atzeratuak ere ordaindu beharko ditu.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

3. Ahalmen ekonomikoaren aldaketaren berri eman bazaio administrazioari, eta, administrazio horri lepora dakizkion arrazoiengatik, prezio publikoa 2 hilabeteko epean berrikusi ez bada, honako bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bidegabe ordaindu diren zenbatekoak itzuliko ditu.

#### **16. artikulua. Prezio publikoak eguneratzea**

Zerga ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza bidez eguneratu behar dira; beraz, hurrengo ordenantza horretan ezarriko dira aplikatu beharreko hobariak eta behar besteko ahalmen ekonomikoa.

### **III. KAPITULUA: PREZIO PUBLIKOENGATIK SORTUTAKO ZORRAK**

#### **17. artikulua. Prezio publikoengatik sortutako zorrak**

1. Zerbitzuak sortutako prezio publikoaren ordainagiria –prezio osoa edo prezio hobari-duna– itzultzen badu bankuak, zordunari ordaintzeko eskatuko zaio, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio zor duen zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatitzeko eskaera egiteko.

2. Aurreko puntuan aipatzen den epean eskatutako dirua ordaindu ezean, edo ordainketa zatitzeko eskatu ezean, 1. paragrafoan ezarritako prezio publikoa eskatuko da premiamenduko administrazio prozedura bidez.

3. Ez bada ordaintzen ordaindu beharreko prezio publikoa, eta hori behin eta berriz egiten bada, zerbitzua eskuratzeko eskubidea eten ahal izango da.

4. Baldin eta, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren esparruan, egiaztatzen bada zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan jasorikoaren arabera prezio publikoa ordaintzera behartutako pertsonak lehenago ere zorrak dauzkala ez duelako ordaindu etxez etxeko zerbitzuaren prezio publikoa, eskatzaileari eskatuko zaio kasuan kasuko jakinarazpena jaso eta 30 egun naturaleko epean ordain ditzala zor dituen kopuruak edo organo eskumendunari eska diezaiola zatikatu diezaiola zorra, artikulua honetako 1. eta 2. idatz zatietan jasotzen den bezala.

Pertsonak ez badu errekurritzen zorra ordaintzeko, hurrengo zerbitzuan hasteko eskaeran atzera egin duela joko da, eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Edonola ere, pertsonak zorra ordaindu ahal izango du geroago, bai eta zerbitzuan hasteko beste prozedura bat abiarazi ere.

#### **LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA Ezkontzaren antzeko harremana**

1. Maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteei buruzkoak, zehaztu dituen bikoteak ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez lotuta daudela joko da zerga ordenantza honen ondoretarako. Lege hori autonomietan dago indarrean.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiria aurkeztuta ziurtatuko da harreman hori, lege horren 3. artikuluan araututako baldintzetan.

#### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aparteko egoerak**

1. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, organo eskumendunak zerga ordenantza honetan jasotako hobari partzialak edo hobari osoak zehaztu ahal izango ditu, edo, hala badagokio, areagotu ahal izango ditu zerga ordenantza honetan xedatutako hobarien zenbatekoak, salbuetsitako zenbatekoak eta erabilera libreko zenbatekoak.

2. Seigarren (6) artikuluan aipatutako arrazoiez bestelako arrazoientatik zerbitzuen erabileraren eteten bada, organo eskumendunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onartu ahal izango ditu plaza gordetzeko.

#### AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea

1. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.
2. Zerga ordenantza hau aplikatuko zaie etxez etxeko laguntza zerbitzua data horretan edo ondoren eskuratzen duten pertsonari.

### I. ERANSKINA

#### PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

6,12 euro orduko

### II. ERANSKINA

#### AHALMEN EKONOMIKOA NAHIKOA DEN ZEHAZTEA

I. eranskinetako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da, hura III. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulaturik eta 1.500,00 euro/hil kopurua bezain handia edo hura baino handiagoa bada.

Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakarria 50.000 eurokoa edo hori baino handiagoa bada, nahiz eta III. tituluaren I. kapituluaren arabera kalkulaturik ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

### III. ERANSKINA

#### HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinetan ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonari honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, zerga ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik:

Etxez etxeko zerbitzuaren banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taula honetako orduko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	GEHIENEZ ERE (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ ERE	EHUNEKOA
Gehienez ere 500,00	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60
1.000,00	900,00	2,92	100,00	0,75



FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	GEHIENEZ ERE (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ ERE	EHUNEKOA
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa			6,12 euro orduko

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, lehenbizi hileko orduen kopurua zehaztu behar da, eta horretarako bider 4,3 egin behar da asteko orduen batura.

Lapuebla de Labarca, 2018ko irailaren 10a

*Alkatea*

**MAIDER MURILLO TREVIÑO**